

BERTAKO NEKAZARIEI AUKERA BERRI BAT EMATEKO APLIKAZIOA

SARRERA

KM Ori buruzko proiektu honetan lanean aritu garen ikasleak Alain Afonso, Iosu Auza, Odei Iguar, Iker Beguiristain eta Garazi Aranguren gara. Gure erronka gizartea hobetzeko proiektu bat abian jartzea zen eta munduan aurkitzen diren hainbat arazo planteatu genituen. Arazo hauen aurrean, aukeraketa bat egin genuen gure gustu, prioridade eta interesen arabera. Haien artean, kutsadura eta bertako produktuen arteko nahasketa bat egiteko aukeraketa egin dugu, gaur egun presente dagoen arazo nagusietako bat dela iruditzen baitzaigu.

Hori kontuan izanda, gure proiektua KM 0ko produktuen salmentaren sustapenaren inguruan egitea ideia egokia iruditu zaigu. Produktu hauek, nekazariak ekoitzi dituzten tokitik saltzen diren tokietara egindako distantzia txikia egin dutenak dira. Bestetik, ekoitzi dituen nekazariak zuzenean kontsumidoreari saldu dizkion edo posible den bitartekari kopuru txikiena izan duten produktuak ere KM 0-koak kontsideratzen dira.

